



Ula Iruretagoiena Busturia - @ulissima5
Arkitektoa

Lurraldea goitik



Ilustrazioa: ULA IRURETAGOIENA BUSTURIA

Mendi gailurretik begirata, egunero lane-
ra iristeko erabiltzen
dugun errepideak
ezberdina dirudi. Be-
giak itxita deskribatu-
ko genituzkeen bihurtzeak, zeharbi-
deak, industriaguneak ezberdinak
dira; ohikoa dugunak bestelako forma
eta tamainak hartzen ditu. Izan ere,
altuera irabazi ahala, giza eskalako lu-
rraldearen esperientziatik aldendu
eta lekuen arteko distantziak distor-
tsionatu egiten dira. Ohiko bistaren
mugak gainditu eta lurraldearen za-
baltasuna hedatzen da gure aurrean;
gure lurraldea eta beste lurraldeak
ikusgai dira, jarraitasunean. Fisikoki
esperimentatzen dugu errealtate ba-
tek aurpegi ezberdinak dituela gure
begiradaren kokalekuaren arabera.

Gure ikuspegia, beraz, baldintzatuta
dago non eta nondik begiratzen du-

gun arabera. Mendia igotzerakoan lu-
rraldeak hartzen dituen ikuspegi ez-
berdinak esanguratsuak dira lurralde-
aren diagnostiko bat egiteko garaian.
Horregatik, teknologiak airetikoko bista
ahalbidetu zuenean, hirigintzaren
egitekoa errotik aldatu zen. Lurraldea
begiratzeko beste leku bat aurkitu
zen, lurraldean eragiteko modu be-
rriak asmatzeko aukera agertu zen.
Hegaldi eta txori bisten perspektiba
aldaketak, logika militarra lurralde-
aren ikuspegiaren barneratzea suposatu
zuen maila handi batean. Goitik begi-
ratzeko aukera duenari, eskua mapa-
ren gainean zabaltzeak lurralde ere-
mu zabala eskuratzeko –zapaltzeko–
fikzioa pizten diola ematen du, lurral-
dearen goitikako begiraleku boterea
eskuratzeko begiraleku bilakatuz –go-
rentasunarerako bide–. Begirada alda-
keta horretan, ematen du lurralde-
aren biztanleak desagertu egiten direla

azken gerratan bataila hirietan gerta-
tzen da drone-armagintzaren eskutik.

Hegazkinekin alderatuta, droneak
ikuspegi horizontala eta bertikala di-
tu, eta sentsoreez baliatzen da indibi-
duoon mugimenduak eta erlazioak
erregistratu eta dokumentatzeko,
urrutiko kontrol-zentro baten agindu-
pean. Gure buruen gain lanean ari
den drone robotak gure bizimodu-
en gaineko informazio zehatza lortzen
du. Eta jakin badakigu informazioa
eskuratzeko kontrolerako datu balio-
tsuak lortzea dela –betiere “segurta-
sunaren” izenean–. Drone zelatariak
lurralde baten irudikapena ekoizten
du, bertako indibiduoaren eguneroko
bizitzak jasoz; gure bizi-esperientzia
kartografiatu egiten du.

Intimotasunaren irakurgarritasu-
nak lurralde politika berri bat ekarri-
ko du: edozein lurtar izan daiteke ob-
jektibo militar baten subjektu. •

bistatik, goitik hartzen di-
ren erabakien albo ondo-
rioek ikusgarritasuna gal-
tzen dutela, txikitasunean
eta distantzian disolbatuko
balira bezala.

**Lurrean gaudenok gora
begiratzean «zeru» dei-
tzen diogun espazio hori,
aukera-espazioa da bote-
rea eskuratzeko.** Kartogra-
fia, lurraldearen deskriba-
pen grafikoa, militarrek
asmatutako teknika da. Ma-
nifestaldi batean kontrol la-
na helikopteroak egiten du,
gerren kontrol espazioa he-
galdietako espazioa da.
Gaur egungo azken arma-
jostailua, dronea, goitik be-
giratu eta behekoa kontro-
latzeko nahiaren ideiarik
garatuena da. Gure irudite-
rian dronea pizzak bana-
tzeko gailu xaloa bada ere,